Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko azaroan

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2024ko azaroan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako eskaintzen kopurua 1.100 izan da, urrian baino 431 gutxiago, eta 2023ko azaroan baino 139 gutxiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketa Administratiboko Unitatearen (KAU) lurralde historikoari dagokionez, 2024ko azaroan, 181 eskaintza erregistratu dira Araban, 506 Bizkaian, eta 413 Gipuzkoan. Araban eskaintzen %16,5 erregistratu dira, Bizkaian % 46 eta Gipuzkoan % 37,6.



Araban hilabete honetan eskaintzak % 15 jaitsi dira (32 eskaintza gutxiago); Gipuzkoan % 23,1 murriztu dira (124 eskaintza gutxiago); eta Bizkaian jaitsiera % 35,2koa izan da (275 eskaintza gutxiago).

Iazko hilabete beraren aldean, eskaintzak % 12,6 jaitsi dira Araban (-26 eskaintza); Gipuzkoan jaitsi dira gehien, bai erlatiboki zein absolutuki, % 18,1 (91 eskaintza gutxiago); azkenik, Bizkaian 22 eskaintza gutxiago erregistratu dira (-%4,2).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn eskaintza gehien erregistratu dituen profila zientzia-teknikariena da, 237 eskaintzarekin, eskaintza guztien % 21,6. Ondoren laguntza-teknikarien profila dator, 191 eskaintzarekin eta % 17,4ko pisuarekin. Zerbitzuen, kualifikatu gabekoen eta industriaren okupazio-profilek ere pisu esanguratsua dute, % 10etik gora, eta erregistratutako eskaintzen bolumenaren ehunekoa % 17,1, % 14,4 eta % 13,6 da, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak lehen sektoreko eta zuzendaritzako profilekoak dira, 16 eta 4 eskaintzarekin, hurrenez hurren.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, jaitsi egin dira profil guztietako eskaintzak, lehen sektorekoak izan ezik, horiek % 60 egin baitute gora (6 eskaintza gehiago). Balio absolutuetan zein erlatiboetan gehien jaitsi direnak zientzia-teknikarien eskaintzak dira, -159 eskaintzarekin eta % 40,2ko jaitsierarekin.

Urte arteko saldoari dagokionez, okupazio guztietan jaitsi dira eskaintzak, lehen sektorean izan ezik, zifra bera izan baitute (16 eskaintza). Balio absolutuetan gehien murriztu diren eskaintzak teknikari zientifikoenak dira, 35 eskaintza gutxiagorekin eta % 12,9ko jaitsierarekin; balio erlatiboetan, beherakada handiena zuzendarien eskaintzetan gertatu da, % 55,6ko murrizketarekin (9 eskaintzatik 4ra igaro da).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako eskaintzen % 42,2 mugagabeak dira, %57,5 aldi baterakoak eta gainerako % 0,3 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa altua da serie historikoarekin alderatuta, gainera, hil honetan, irailarekin alderatuta 4 puntu baino gehiago igo da eta 2023ko azaroarekin alderatuta ia 6 puntu. Datu horiek lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joera berresten dute.



Kontratu mugagabeen eskaintzak 464 izan dira, aurreko hilabetean baino 110 gutxiago (%19,2ko beherakada). Aldi baterako eskaintzak 317tan jaitsi dira; guztira 633 izan dira, balio erlatiboetan %33,4ko murrizketa da. Azkenik, merkataritza izaerako 3 eskaintza egon dira azaroan, irailean baino 4 gutxiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 20tan igo dira (% 4,5eko igoera); aldi baterako eskaintzak, berriz, 159tan jaitsi dira, % 20,1 gutxiago. Azkenik, merkataritza-eskaintza kopuru bera erregistratu da urteko erreferentzian (guztira 3).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

Azaroan, erregistratutako eskaintzen % 77,8k, 0-6 hilabeteko esperientzia behar dute; 856 eskaintza guztira. Erregistratutako eskaintzen % 13k (143 guztira) 6-12 hilabeteko esperientzia behar dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia handiagoa eskatzen duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitarteko aldiak, % 1eko pisuarekin (11 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago behar dituztenek; 2 eskaintza eta % 0,2ko pisuarekin.



Hileko bilakaeran, behera egin dute eskaintzek esperientzia-tarte guztietan. Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete bitartean behar dituzten eskaintzetan izan da, 339 eskaintza gutxiagorekin eta % 28,4ko jaitsiera erlatiboarekin; balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena 5 urte baino gehiago behar dituzten eskaintzetan gertatu da (-%85,7 eta 12 eskaintza gutxiago).

Urteko bilakaerari dagokionez, eskaintzak ere jaitsi egin dira eskatutako esperientzia-tarte guztietan. Guztizko balioetan, nabarmentzekoa da 0 eta 6 hilabete bitarteko esperientzia-

tartearen beherakada, 69 eskaintzatan jaitsi baitira (-%7,5); balio erlatiboetan, 5 urte baino gehiago behar dituzten eskaintzen beherakada nabarmentzen da, % 66,7 jaitsi baitira (-%4 eskaintza).

Azaroan erregistratutako lan-eskaintzek batez beste 5 hilabeteko esperientzia eskatzen zuten.

• LANALDI MOTA

Aipatzekoa da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten lanaldia erregistratzerakoan, eskaintzen %13,8k bakarrik zehazten baitute (1.100 eskaintzetatik 152k). 152 eskaintza horietatik 114 lanaldi osokoak izan dira, eta gainerako 38ak lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari lanaldi osoko eskaintzak 84tan jaitsi dira azaroan, hau da, % 42,4 gutxiago. Aitzitik, lanaldi partzialeko 5 eskaintza gehiago izan dira; igoera erlatiboa % 15,2koa izan da.

Aurreko urteko hil beraren aldean, lanaldi osoko 20 eskaintza gutxiago izan dira (% 14,9ko beherakada). Hileko erreferentzian bezala, lanaldi partzialeko eskaintzek gora egin dute: 8 eskaintza gehiago, eta % 26,7ko igoera erlatiboa izan da.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 17 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 1 gutxiago eta aurreko urtean baino 10 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle hau ere ez da beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 81,3k ez dute zehaztu gutxieneko prestakuntza-maila: 1.100 eskaintzetatik 204k soilik zehaztu dute maila akademiko minimoa.



204 eskaintza horietatik 85k unibertsitate-ikasketak eskatzen dituzte; ikasketa-maila hori da gehien eskatu dena. Ondoren, Lanbide Heziketako ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak datoz, azaroan 81 eskaintza erregistratu baitira. Atzetik derrigorrezko ikasketen eta batxilergoko profiletakoak datoz, 28 eta 12 eskaintzekin, hurrenez hurren.

Hil arteko erlazioan, behera egin dute eskaintzek ikasketa-profil guztietan. Jaitsiera handiena, balio absolutuetan, unibertsitate-ikasketen eskaintzetan izan da, 68 eskaintza gutxiagorekin eta % 44,4ko jaitsierarekin; ehunekoetan, murrizketarik handiena derrigorrezko ikasketak behar dituzten eskaintzetan izan da, % 50 gutxiagorekin (-28 eskaintza).

2023ko azaroarekin alderatuta ere, eskaintzek behera egin dute ikasketa maila guztietan. Derrigorrezko ikasketak behar dituzten eskaintzak murriztu dira gehien, bai maila absolutuan, bai erlatiboan (38 eskaintza gutxiago, % 57,6ko jaitsiera).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratu diren eskaintzen bolumenagatik gehien nabarmentzen den jarduera administrazio publikoa da, 177 eskaintza baititu guztira, hau da, hileko eskaintza guztien % 16,1. Ondoren merkataritza eta industria daude, 135 eta 118 eskaintza erregistratu dira jarduera hauetan (eskaintza guztien % 12,3 eta % 10,7, hurrenez-hurren).

Aurreko hilabetearekin alderatuta, eskaintzak jarduera gehienetan jaitsi egin dira. Nabarmentzekoa da administrazio publikoko eskaintzen balio absolutuen beherakada (-130 eskaintza, -% 42,4); balio erlatiboetan, murrizketarik handiena informazio- eta komunikazio eskaintzetan izan da, % 58,7ko jaitsierarekin (-27 eskaintza). Aitzitik, igoerarik handiena beste zerbitzuetako eskaintzetzan izan da, 7 eskaintza gehiagorekin (+%10,8).

Urte arteko saldoari dagokionez, jarduera gehienetan jaitsi dira eskaintzak. Nabarmentzekoa da administrazio publikoko (-88 eskaintza, -% 33,2) eta ostalaritzako (-36, % 42,4ko jaitsiera) eskaintzen beherakada. Aitzitik, igoera handiena merkataritzan izan da (+14 eskaintza, % 11,6ko igoera).